



2013KO UZTAILAREN 5EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hamahiruko uztailaren bostean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Azeari Andonegi Beristain Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Kepa Goenaga Alikostes eta Haizea Mendia Insausti.

Inazio Estensoro Eskisabel eta Andoitz Garmendia Zubeldia zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten da 2013ko ekainaren 21ean egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2013ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 36 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HAMALAU MILA BOSTEHUN ETA HAMAHIRU EURO ETA BERROGEITA ZAZPI ZENTIMO (14.513,47 €)takoa onartu eta ordaintzea erabakitzen da.

III.- KOMUNIKAZIO ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Parte hartze eta Komunikazio Batzordetik aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartzen ditu:

Goiberri aldizkaria.-

Bere izenean 2013ko aurrekontuan izendatutako dirulaguntzatik orain erdia ordaintzea, hau da, bi mila eta zazpiehun (2.700 €) euro.

Goierrri Telebista.-

Bere izenean 2013ko aurrekontuan izendatutako dirulaguntzatik orain erdia ordaintzea, hau da, lau mila eta berrogeita hamar (4.050 €) euro.

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura Batzordetik aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:



Lazkao Txiki Musika Eskola.-

Bere izenean 2013ko aurrekontuan izendatutako dirulaguntzatik hirugarren eta azken herena ordaintzea, hau da, lau mila eta ehun (4.100 €) euro.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak eta hamalau direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large, stylized initial 'E' followed by a horizontal line and a vertical stroke, and ending with a long horizontal tail.